



# Uribelar

etxebizitza

Aldacrak: Uribelarrea  
Ahozkoa: Urúbillar



43° 11' 7"

2° 35' 32"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

*"... una casería llamada Uribelar o Uribellar... de la barriada de Andiconia jurisdicción de Berriz, es de una vivienda, ocupando una planta superficial de un área y diez y siete centiareas..."*  
DJE 8/60 or. (1908)

XVIII. mende hasierako Bizkaiko su-erroldan aurkitzen dugu baserri honen gaineko lehen aipamena: *Uribe Larrea* (1704). Jatorrizko forma horretatik abiatuta, 1745. urteko su-erroldan *Vibelar* era agertzen zaigu. Hortik aurrera, dokumentu gehienetan forma bera agertzen da: *Uribe Lar* (1803, BAH, A72/9), *Uribelar* (1857, BUA, Viv) eta *Uribelar* (1905, BUA, 40). Hala ere, batzuetan *Uruwillar* (1866, DJE, 2/ 23. or.) eta *Urubillar* (1910, BUA, RU) moduan ere agertu izan da. Azken forma hori azken erroldetan jasotzen dena, *Urubillar* (1967, BUA, CE), alegia, dugu ahozkotasunean erabiltzen dena (*Urúbillar*).

Guztiz eraberrituta dagoen baserria da. Gaur egun oso fatxada ordenatua dauka simetria ar-

## toponimia

*Etxe honen aipamen zaharrenean Uribelarrea ageri da. Tamalez izena ez da berriro horrela agertzen eta ezin dugu jakin benetako izena ote zen edo eskribau batek egindako zuzenketa. Hala eta guztiz ere 1641ean Elorrión Martín Uribelarrea ageri da. Ondorioz, pentsa liteke izenaren bigarren osagaia larre eta artikulua dela. Uribe toponimoa oso arrunta da mendebaldena, besteak beste merindade zahar baten izena. Uri hitzaren esanahia argia da "hiri", baina sarritan, izen zaharretan, kasu honetan bezala, ez da hiribildua edo populatutako auzoa, etxe soila baizik. Bereaz badirudi "beheko etxea" esan nahi zuela izen honek. Hala eta guztiz ere, toponimian ageri den -be osagai hori "txiki" moduan ere itzuli izan da. Hori horrela balitz "etxexu" izango litzateke esanahia. Aldeko hitzak ez du aparteko zailtasunik.*

datzaren arabera, baina azkeneko erreformaren aurretik atartea bera alde batean zeukan, eta bestelakoa zen bere itxura. Dena den, baserriak pisu bi eta ganbara dauzka eta sarrera egurrezko dintelak eutsitako atarte baten bidez egiten da. Honen gainean egurrezko kareldun balkoia egin diote, bi bao batuz, eta alboetan, solairu bakoitzean, leiho bana. Ganbaran, leiho bakarra dauka. Materialari begiratu ezker, harlangaitza da nagusi eta harlandua gorde zuten kantala eta bao guztietarako, eskumaldeko leiho berrian ezik, honetan zurezko dintela baitauka. Teilatua isuri bikoa da eta datatzekotan, XVIII. mendekoa dela esan daiteke.